

Erosle, saltzaile eta ikusle uholdea

Jendea erruz joan zen atzo urteroko azoka ikusi eta haren gerizpean atondutako ekitaldiak gozatzera

Arantxa Iraola / Zumarraga

Astegun buruzuria izan arren, egun handia zen atzokoa: Santa Lutzia. Zumarragan eta Urretxun feria eguna izaten da, eta urteroko moduan, arrakastatsua izan zen atzokoan ere. Saltzaileak gai-rik ederrenak erakusgai jarrita azaldu ziren goizean goizetik, eta erosle askok Eguberri atariko erosketak egin zituzten.

AZOKA handi bihurtu ziren atzo Urretxu eta Zumarragako kale nagusiak. Han ez zen ezeren eskasiarik, eta goizean goiz bazen jada zer gozatu. Barazki eta fruta saltzaileak, artisauak, talo egileak, gozogileak, orotariko gailuak saltzen dituzten saltzaile ibiltariak... Nonahi ageri ziren, festa giro betean. Zumarragan, esaterako, 238 postu zeuden, eta Urretxuko kaleak ere ehunka saltzailearen topagune ziren.

«Jendea ere ugari etorri da», zioen eguerdi partean Urretxuko zinegotzi Jon Aldamak, inolako gorabeherarik gabe guztia iragarritako eran zihoala azalduz. «Jazko modu paretsukoan doa guztia», azaldu zuen. Ezin ahan-tzi, hala ere, iaz igandea izan zela Santa Lutzia eguna, eta bereziki jendetsua izan zela azoka.

Azoka huts izatetik harata-go, festa eguna ere bada Santa Lutzia Zumarragan eta Urretxun, eta ageri-agerian geratu zen hori. Musika banda kalez kale, trikitilari taldeak edonon, herri kirolen ikuskizunak, pilota partiduak, idi probak... Azoka bizi-biziaren osagarri izan ziren horiek guztiak.

Beste hainbatentzat, berriz, aldarrikapenerako parada izan zen Santa Lutzia eguneko azoka. Aurpegia estalirik, kalez kale ibili ziren hainbat lagun *Euskal presoak Euskal Herrira* zioen leloa erakutsiz, eta aldarri horren aldeko idatzi bat banatu zuten eskuz esku.



EDURNE KOCH

Ikuskizuna eta lehia uztarturik

Nekazari giroko ekoizpenek garrantzi berezia izaten dute Santa Lutzia eguneko

ferian, eta horiek sustatu eta saritzeko ohiko lehiaketak egin ziren atzo ere. Eguerdi parterako ondo nabarmen-duta zeuden postu guztietan saridun jazo ziren barazki,

Zaldi, asto, behor, moxal...

BEREZKO bereizgarri du Santa Lutzia eguneko azokak zaldi-aziendaren feria. Zumarragan egiten da, eta atzo ere arrakasta handia izan zen. Orotara 526 abelburu eraman zituzten bertara. Ohikoa de-nez, zaldi-azienda izan ziren jaun eta jabe, asto, moxal, zaldi, pottoka eta behorrak —ahuntz, behi

eta txahalak bakan izan ziren bertan—.

Benetako feria izaten da, salerosketa handikoa. «Gaur, esaterako goizean goizetik mugimendu handia izan da, eta eguerdira-ko 104 buru salduta zeuden», azaldu zion EGUNKARIARI Zumarragako Udaleko Kultura Saileko kide Lurdes Etxanizek.

errezil sagar, hegazti, ezti, ardo eta gainerako gaiak, eta 13:30etan, irabazleek sariak jaso zituzten, Areizaga Plazan egin ekitaldian.

Ekitaldi hori burutzearekin bat, salgai jarritako gaiak jaso eta etxerako bidea hartu zuten saltzaile askok. Ez zuten bide luzea egin behar izan gehienek. «Izan ere, etortzen diren saltzaile gehienak Bizkaia eta Gipuzkoakoak dira», azaldu zuten atzo sari banaketa ostean antolatzaileek.

Ez zen amaitu, ordea, Santa Lutzia eguneko egitaraua sari banaketa horrekin. Arratsaldean, hainbat ekitaldi izan ziren, festa ere bai baita Santa Lutzia eguneko feria.

irabazleak

Ekoizpenik onenei, saria

Urteroko legea konplitutuz saria eman zieten atzo Urretxu eta Zumarragako udalek feriako ekoizpen eta abererik onenei. Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Kutxak ere esku hartu zuten sari banaketan, eta hona hemen, nabarmenak.

Eztia • Iaz bezala, atzo ere Goierriko eztigileek lehia jardun zuten eta lehen saria Josetxo Urteaga besaindarrak irabazi zuen.

Ardoa • Eltziego Arabako udalerriko Azpillaga Uriarte upeltegiak jaso zuen lehen saria.

Barazki eta frutak • Nekazariak aurkezturiko barazki eta fruta sorta ederrenengatik jaso zituzten sariak. Barazki lehiaketan Jose Lonbide eta Jose Manuel Zabalegi izan zen saridunak, eta fruta lehiaketan, berriz, Miren Agirrezabala eta Agustina Iradi. Errezil sagarren lehiaketa, fruta berezia izaki, Mari Karmen Uranga hernaniarra irabazi zuen.

Oilasko eta kapoiak • Kapoi lehiaketan bi irabazle izan ziren, Mari Karmen Uranga hernaniarra eta Jose Ugartemendia erre-zildarra. Oilaskoenean ere beste bi: Zamudioko Iñaki Artetxe eta Urretxuko Antonia Pildain hain justu.

Zaldi-azienda • Haragitarako zaldietan Legasako Indart anaiak izan ziren garaile nagusiak, sari guztiak irabazi baitzituzten. Pottokei zegozkien bi ataletan, berriz, Gipuzkoarrak izan ziren irabazleak; Aretxabaletako Estibalitz Llodio eta Ezkio-Itsasoko Luis Mari Amiana.

IKER

SUKALDE ALTZARIAK

FAGOR



Udala Enparantza
Tel.: 943 79 00 43 **ARRASATE**
Ipiñarrieta, 5
Tel.: 943 72 50 75 **URRETXU**